

Zumaiako herri aldizkaria

2001eko uztailak 13

BALEIKE

200 pta.

87. zenb.

Iñaki Osa Goikoetxea

kinieletatik Euskadiko Txapelketara



Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxes: 943 86 17 42
email: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea

Esther Aizpurua

Eguzki Agirrezabalaga

Antxoka Agirre

Juan Luis Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Antxoka Agirre

Xabier Aizpurua

Marraskigilea

Jon Manzisidor

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier Aranguren,

Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,

Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,

Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,

Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize

Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat

Fernandez de Arroyabe, Luis Mari

Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose

Manuel Gonzalez Aramendi,

Ludoteka, Natur Taldea

Argazkiak

Baleike

Azaleko argazkia

Euskaldunon Egunkaria

Diseinua eta maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

8 ze berri?
Estazio auzoaren itxuraldaketa



9 ze berri?
Sariak barra-barra



10 erreportajea
Hondartzetako kantinetako tourra

13 bazterbide
Urolaren jaiotzaren bila

22 kirolak
Piraguitak berriro albiste

23 kirolak
Surflariak olatuaren aparrean

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



Agenda zaharren astinduak

Urteak uste baino abiadura handiagoz aurrera doazela jabetzeko formula sinple bezain fidagarria deskubritu dut kasualitatez egunotan: orain hamar

bat urte etsipenez galdutzat eman zenuen telefono agenda zaharra bat-batean aurkitzea eta bertako orrialdeetako izen eta telefonoak pazientzia eta arreta handiz banan-banan errepasatzea, garai batean Kimika azterketen bezperan buruz ikasi behar izaten zenituen formula ulertezinak bailiran. Oso metodo sinplea dirudi, bai, baina etxera aspaldiko lagunen bat etortzen zaizun bakoitzean kafe egin berriarekin batera atera behar izaten dizkiozun argazki bilduma potoloetako irudi sekuentziak baino askoz ere eraginkorragoa da. Baita azkarragoa eta interesgarriagoa ere. Eta hunkigarriagoa, benetan.

Zure idazkera konturatu gabe ezkerralderantz okertuz joan dela eta lehen orain baino askoz ere txukunagoa zinela ohartuko zara. Ez, egia da, horrek ez du aparteko garrantzirik, baina "A"ri dagokion orrialdeko lehen lerroak irakurri bezain pronto, ganbarako liburu zaharren artean edo ohe azpiko kartoizko kaxetan aurkitu berri duzun agenda estreinatu zenueneko garaia etorriko zaizkizu ziurrenik burura. Boligrafoa hartu eta lehendabizi izen batzuk zirriborratuko dituzu begietan malkoak dituzula eta, ondoren, aspalditik ahaztuta zenituen beste zenbait lagun non ote diren galdezka hasiko zara. Agian, agenda horri esker kontserbatu duzun pista bakarra erabiliz, telefonora hurbilduko zara ezustean piztu zaizun jakin-mina asetu nahian, baina laugarren saioan etsi egingo duzu, telefonoz bestaldean "orain ez da hemen bizi" edo "ez duzu zenbaki zuzena markatu" dioten ahots arrotzak "barkatu" triste batekin agurtu ondoren.

Agenda itxi, gaur erabiltzen duzuna zabaldu eta berehala konturatuko zara urteak aurrera doazela. Uste baino abiadura handiagoz, gainera.



Eguzki Agirrezabalaga


Eta zuk 'Aita Mari'k zer diozu?

Nire izkina honetatik, ezker-eskuineko aulkietan esertzen diren zaletuen kontuak, infantilak, kadeteak, trainerillak, etab., entzun ondoren, oso pozgarriak zirela-eta, itxaropen handiz pasa ditut neguko azken egunak. Udaberriarekin batera honaino berri gutxi iritsi dira, ordea; egunero hemen esertzen diren zaletuei galdezka aritu naiz, baina inork ez daki zer gertatzen ari den gure herriko arraun taldearekin.

Telmok, nire lagunak, bere gordele-kutik, gure kolorea momentuz utzi edo beste batekin nahasi behar dugula entzun omen du. Bere kaleko kolorea, suaren kolorea, gogor lan egiten duen kolorea, Itziarren semeari eskainitako krabelinaren kolorea, nola nahastu hain erraz beste batekin?

Horrela gauzak, eta zerbait argitu arte, mesedez, eta aurtengoz behintzat, niri eziezadazue zapi gorriak ipini lepoan.

GORRITXU



dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Bandera urdinak..., bandera piratak?

Duela egun gutxi, kasu hauetan ematen den parafernalia eta guzti, Itzurun hondartzako eta kirol portuko mastetan bandera urdinak jarri dituzte. Trapu urdina Europako Batasunak ematen duen saria dela uste baduzue ere, jakin ezazue erakunde horrek kontu hauetan daukan ardura bakarra dirua banatzea dela. Izan ere, Europako Batasunak ez du erabakitzen zein hondartzak eta kirol portuk jasoko dituzten bandera hauek. Horretarako gobernuak kanpoko zenbait erakunde biltzen dira Feee-n (Europako Ingurugiro Heziketarako Fundazioan). Feee-k, ordea, ez du ur analisirik egiten, ez eta izendatzeko proposatzen diren lekuak zuzenean ikuskatzen ere. Horretarako, udalek edo beste administrazio batzuek igortzen dizkieten datuez fidatzen da.

Hori dela-eta, azken urteotan eztabaida handia izan da bandera urdinen izendapenen inguruan eta Europako kostaldean iruzur akusazioak izan dira nagusi. Izan ere, zenbait kasutan ur kalitatearen datuak aldatu egin baitira interes konkretuen arabera. Azken batean, bandera urdinak turismoa erakartzeko propaganda dira, eta sari preziatu hori jaso ahal izateko, batzuetan hondartzetako datuak aldatu egiten dira. Egoera ikusita, 1999. urtean Europako Batasunak dirulaguntzak kendu zituen eta hainbat administrazio beren buruari eman zizkieten hondartza eta kirol portu batzuetan ikusi genituen bandera urdinak.

2001. urtean, Hego Euskal Herrian, hamar hondartzak jaso dituzte bandera urdinak: Azkorri, Barinatxe-Solandotes, Plentzia, Bakio, Laida, Laga, Ea eta Karraspio, Bizkaian; eta Itzurun eta Malkorbe, Gipuzkoan. Gainera, Getaria eta Zumaiako kirol portuek ere bandera hori erakusteko aukera izango dute aurten. Nahiz eta harrigarria izan, Kantauriko altxorak, Kontxa hondartzak, alegia, ez du ikurra jaso, eta ez du ezta eskatu ere. Oso arriskutsua litzateke horren bila ibili eta, baldintzak betetzen ez badira, banderarik gabe gelditzea.

Zein dira, ordea, bandera urdina jasotzeko beharrezko baldintzak? Gure agintariek uraren kalitatea eta bertan ematen diren zerbitzuak (dutzak, paperontziak, sorosleak...) aipatzen dituzte, harro-harro. Bada ez bada ere, ordea, patrikan gordetzen dituzte bete behar diren beste obligazio batzuk. Izan ere, Feee-ek bere izenean azaltzen duenez, kanpaina honen helburu nagusietako bat ingurugiro heziketak izan behar luke. Baina inork ezagutzen al du Itzurunen edo kirol portuan ingurua ezagutzeko edo zaintzeko egin den ekintzarik?

Santixoko hondartzak ez ditu ur kalitatearen estandarrak betetzen, eta oso zaila da sinestea ibaiaren barrenean dagoen portu batek betetzen dituela. Behin baino gehiagotan gasolio usaia sumatu dugu, ikusi ditugu motorrak atxikatzen, baita barruko dartsenan eta hegoaldeko moiletan pilatzen diren zaborrak ere. Eta itsasontziak lixatze-rakoan, nora joaten dira sortzen diren hauts toxikoak? Ba, ibaira, jakina

Uda giroa dugu eta duela hiru urte leku publikoa zen lekuan, gaur egun autoa aparkatzeko "saria" ordaindu behar da eta aldameneko aireportua ezin da erabili autoa lagatzeko, Jaurlaritzak bere mokadutxo ere atera nahi baitu. Nahi ala ez nahi, erdi ipurdi dabilen kirol portua saldu nahi digute, baina pantalanetako giltzarik ez badugu, txiza egitea ere ez da erraza kirol portu publiko horretan.

Genioenez, urdinak ala piratak?

ZUMAIA BIZIRIK

ZUMAIA SARIEN BANAKETA DELA-ETA

* **OHARRA:** *gutun hau sariak banatu aurretik idatzi zen.*

Iaz, lehenengo aldiz, kiroleko hainbat arlotan zumaiarrek egindako lana errekonozitu nahi izan zuen Udalak, horretarako hainbat kirol talderi sariak banatuz. Ekitaldi hark ez zuen izenik, ez ziurtatutako jarraipenik ere.

Aurten, berriro ere, hainbat sari banatzekoa da Udala. Hasieran pentsatzen genuen kirolarien lana saritzeko zela, hau da, iaz bezala. Baina sanpedrotako programa irakurtzean jakin dugu aurtengo ekitaldia hori baino zerbait gehiago izango dela, "urtean zehar bere jardueran bereziki saiaturako zumaiarren lana eskertzeko" izango dela. Hau da, Donostiako Udalaren itxuran, herriko festetan banatuko den saria sortuko dutela dirudi. Sarituen izenak ere azkeneko momentuan jakin ditugu.

Saria jaso behar dutenek uste dugu nahikoa meritu badutela hori eta gehiago jasotzeko. Kontua zera da: batzuk saritzean, beste hainbat baztertu egiten direla. Beraz, sari bat ezarri aurretik, komeni da aztertzea saria premiazkoa den, horrekin zer lortu nahi den eta beste hainbat gauza, zumaiarrek elkar lotzeko balio beharko lukeena eztabadagai bihur ez dadin.

Sari hauek direla-eta, azterketa txikiena ere egiteke dago. Inolako udal batzordetan ez da ezer informatu, ez eztabaidatu, ez proposamenik egiteko aukerarik eman. Are gehiago: badirudi PNVko norbaiten okurrentzia dela, eta berak erabaki duela saria sortzea, sarien izena eta aurten nori eman behar zaion.

"Zumaia Sariak" ezarri behar baldin badira, iruditzen zaigu beste era batera lan egin behar dela, pertsona bakar baten kapritxo baido zerbait gehiago izan dadin. Hau da, uste dugu alderdi politikoei, kultur elkarteei, azken finean, zumaiar guztiei, hitz egiteko aukera eman behar zaiela, baita proposamenak egiteko ere.

Gure ustez, aurtengoan gauzak ez dira batere ondo egin. Hortik doa eta horretara mugatzen da gure kritika. Esan dugun bezala, ez dugu gutxiesten sarituen lana eta, hori garbi gera dadin, gure ordezkariak izango dira ekitaldian. Dena den, berandu baino lehen, PNVk okerra zuzentzea espero dugu, hemendik aurrera horrelakorik gerta ez dadin.

Zumaian, 2001eko ekainaren 27an

Zumaiako EUSKAL HERRITARROKeko zinegotziak

Aldaketa handiak Estazioko auzoan

Odieta auzoan bezala, Zumaiaiko Udaleko Hirigintza sailak Estazioko auzoa guztiz eraberritzeko asmoak eman ditu argitarara. Hirigintza plan horren arabera, herriaren kanpoaldeko auzoa goitik behera aldatuko litzateke, etxe batzuk botaz eta haien ordezt berriak eraikiz. Odietan ez bezala, ordea, badirudi Estazioan bizilagunak ados daudela Udalaren asmoa jakin eta berehala. Baina adi egon beharko dugu, ea jabekideek, behin betiko proiektua ezagutzen denean, jarrera berbera erakusten duten jakiteko.



Estazioko auzoa antzinako paduren kotan eraikita dago; kota horretan gelditzen den auzo bakarra da une honetan Zumaian, eta horrek hainbat arazo eragiten ditu. Lubakietan Basadi, Aita Mari eta Alai auzoak

eraiki zirenean, kota goren batean egin ziren. Eraikin horien sotoak dira paduren mailan daudenak. Espaloiak, bideak eta atariak metro batzuk gorago egin ziren. Estazioan, aldiz, alboko auzoekin konparatuz, etxebi-

zitzak metro batzuk beherago daude. Beste auzoak baino beherago egoteak arazo bat baino gehiago sortu ditu, bai hirigintza eta bai sanitate aldetik. Inola ere lehortzen ez diren putzuak daude eta horiek eltxoen bilgune bihurtu

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

dira. Kexa bat baino gehiago jaso omen da arazo horrengatik. Arazo hori konpontzeko era bakarra, ordea, auzoa igotzea izango litzateke, udal arkitektoaren esanetan.

Estazioko auzoa eraberritzeko asmoa aspalditik dator. Oraindik indarrean dauden arau urbanistiko zaharretan azaltzen zenez, Estazioko auzoa igo beharra zegoen, baina orduan, orain 10 urte inguru zegoen gestio urbanistikoa- rekin, ezinezkoa zen tamaina horretako lanak aurrera eramatea.

2001. urtean, aldiz, Udalak lanei ekiteko asmoa erakutsi du. Obren gestioa Zumaia Lantzenen eskutan utzi du. Zumaia Lantzen Zumaiaiko gestio eta garapen urbanistikoaz arduratzen den elkarte anonimoa da. Elkarte horren administrazio kontseilua Zumaiaiko Udaleko zinegotziek osatzen dute. Herrian egin diren lan ugariaren ardura izan du elkarte horrek; adibidez, orain gutxi Eroski hipermerkatuaren inguruan eraiki diren etxebizitzek arduratu da.

Zumaia Lantzenek, dagoeneko, aurre-proiektua eskatu du, horrekin arauetan egin behar diren aldaketak egin daitezzen. Bizilagun eta jabekideekin bilerak ere izan dira. Udalaren aldetik, Ricardo Peña Alkatea eta zinegotzi batzuk izan ziren bilerotan. Bizilagunei Udalaren asmoak azaldu zizkieten, eta dirudienez, lehen bilera horretan bizilagunek ez zuten erreparatu handirik jarri.

Oraindik proiektua egin ez bada ere, badirudi auzoko ia etxebizitza guztiak bota egingo direla. Bi baino ez dira zutik geratuko: auzoaren sarreran dagoena eta orain urte batzuk eraiki zena. Azken etxebizitza hori jada arau berrietara egokituta dago eta orain beheko solairua dena, obrak egin ahala



sotoa bihurtuko da. Botatako etheen ordeztu, kota berrian etxebizitza berriak eraikiko dituzte. Etxebizitza horiek lurrazpiko aparkalekuak eta parkeak izango dituzte eta Alaiaren inguruan egin diren etxe berriekin lotura ona izango dute, adierazi digutenez.

Udal arkitektoak aipatu digunez, Estazioko lan hauen bidez, asmo hau bete nahi du Udalak: auzoaren kota altxatzea eta Zumaian ur azpian gera daitekeen gunerik ez izatea. Horrela, gainera, saneamendu lanak ere egingo dituzte. Luxiano Pagaegi arkitektoaren esanetan, obra hauekin auzoa herriarekiko askoz ere lotuagoa egongo da eta ez orain bezala, bere esanetan, Estazioko auzoa nahiko baztertuta baitago. Saihesbidea eraikitzean, gainera, oraindik ere baztertuagoa geratuko da, aipatu digunez.

Mugimendurik ez Odietan

Lehen esan dugunez, Estazioko auzoan bizilagunen aldetik ez da izan eragozpen handirik; Odietan, ordea, oso bestela gertatu da. Bertako jabekideak ez daude ados Udalak egin nahi dituen lanekin eta kexa ugari agertu dituzte Udaletxean. Bizilagunen jarrera

honetaz ohartuta, beraiekin hitz egin arte ezer ez egitea erabaki du Udalak. Orain arte proiektuaren aurrerapen bat kaleratzeaz gain, arauen aldaketa onartu du Udalak. Badirudi abuztuko oporrak heldu baino lehen izango dela Udala eta Odietako bizilagunen arteko bilera. Bilera honetan, proiektua zertan datzan adieraziko zaie.

Nahiko minduta dago Luxiano Pagaegi arkitektoa bizilagunen jarrerarekin. Izan ere, auzoko bizilagun batzuk lanak egitearen alde daude, baina beste batzuk guztiz aurka jarri dira. Arkitektoaren esanetan, hauek ez dute ikusten zer nolako hobekuntza izango duen auzoak pilotalekua bota eta auzoa Beheko Plazarekin batzen denean. Argi utzi nahi izan du halako etsaitasunarekin topo egiten badu, Udalak bertan behera utziko duela proiektua. "Herrian aldaketa handia ekarriko lukeen proiektu arkitektonikoa paperean geratuko litzateke, eta kito", dio Luxianok. "Udalak ez du ez dirurik ez energiarik gastatuko jendeak gaitzetsi duen proiektu batean. Nahikoa du Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzearekin. Galdutako beste aukera bat izango litzakete, eta hala geratuko litzateke", aipatu du udal arkitektoak.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409





Aldaketak parrokiako erlojuan

Azken aste hauetan parrokiako erlojua eta kanpaiari buruz hainbat esamesa entzun dira herriko kaleetan. Meza hasi aurretik ordu laurden luze batean kanpaia jotake aritzen dela, etab. Kontuak kontu, erlojua automatizatua izan da azken aste hauetan. Orain arte ordu-alaketak eta erlojua puntu-puntu jartzea eskuz egin behar zen. Oraindik aurrera irratu uhinen bidez egingo da lan hau.

Teknikronos enpresa izan da lan hauetaz arduratu dena. Erlojuaren funtzionamendua modernizatzeaz eta automatizatzeaz gain, kanpaiak ere sinkronizatu egin dira. Aginduak makina baten bitartez emango dira. Parrokiaren tontorrean antena bat ere jarri da. Horren bitartez irratu uhinak jasoko dira, eta uhin hauek

izango dira erlojua puntuan jarriko dutenak. Uda eta neguko ordu alaketak uhin hauen bitartez egingo da.

Aipatu denez, argindarrak huts eginda ere, sistema guztia martxan jartzeko memoria ere izango omen du. Modernizazioa ere heldu da parrokiara. Espero dugu hainbesteko makinaria jarri ondoren ordua behintzat ondo emango duela.

Artadiko aldarearen kontsagrazioa

Erljio edo eliza gaiekin jarraituz, hilaren 8an sagaratu zen Artadi San Migelko aldarea. Juan Maria Uriarte gotzaina izan zen ekitaldian. Aldarean egindako lanekin batera, berritze lan handiak egin dira elizan. Hezetasun arazoei amaiera eman zaie, pintura kapa berria eman zaio, argiztapen, megafonia eta berokuntza sistema berriak ezarri dira eta presbiterioa berregin da. Guztira 12 milioi ordaindu beharko dira lan hauegatik.

5 gazte atxilotu zituzten estazioan

Ekainaren 29tik 30erako gauean, 16 eta 18 urte bitarteko bost gazte zumaia atxilotu zituzten Estazio inguruan. Gazteak Artadi aldean zebiltzala, auto batek giltzak jarrita zeuzkala konturatu ziren; barrura sartu, arrankatu, behera jaitsi eta Estazio inguruan zebiltzala Ertzantzarekin egin zuten topo. Norbaitek goizaldeko 2:45an eginiko dei baten ondorioz joan ziren Ertzainak hara; autoa geldiarazi eta matrikula hartzean, Bergaran ekainaren 14an lapurtutako auto bat zela konturatu ziren. Horrela, bost gazteak Zarautza eraman zituzten, baina gau berean gelditu ziren aske.

Zumaiaiko industrialde batean droga atzeman

Uztailaren 3ko egunkariak iturritzat hartuta jakin dugu Zumaian lau lagun atxilotu zituztela, drogarekin harrapatu ondoren. Atxilotoketa herriko industrialderen batean egin zuten, eta atxilotuak, berriz, lau lagun bizkaitar izan ziren. Atzemandako droga kantitatea ehun gramokoa zen, eta material mota speed-a.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan




Arantza Aramendi
Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37



Juan Belmonte, 6

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Sariak, sariak, sariak...

Sanpedroen atarian banatu ziren lehen aldiz Zumaia izeneko sariak. Udalak eratutako sari honen bitartez, denboraldian zehar herrian egiten diren kirolekin garaipen nabarmenak lortu dituzten talde eta banakakoak zoriondu nahi da. Bestalde, kirol arloa alde batera utzita, kultura edo gizarte mailan lan egin duten zumaiaarrak nabarmendu nahi dira. Azken sari horiek urtero banatuko ditu Udalak.

Sari honen lehen ekitaldi honetan saritutako zumaia kirolariak honako hauek izan dira: Zumaia Futbol Elkarteko lehen mailako kadete taldea, Aita Mari arraun elkarteko senior mailako trainerilla eta infantil mailako batela, Pulpo eskubaloia taldeko nesken kadete taldea, Itxas-Gain piragua elkarteko kide den Oier Aizpurua, Zumaia Txirrindulari Elkarteko Iban Iriondo, Zumaia Pilota Elkarteko Luis Mari Alberdi eta Gotzon Enbil eta jubenil mailako Grela, Lopez, Korta eta Beristain, eta Anade Ehiz eta Arrantzu elkarteko Imanol Olaizola, Beatriz Mateos eta Jose Mari Zendoia.

Kirolariek aparte, beste bi sari eman ziren sari banaketa ekitaldian. Batetik, San Pedro Txiki eta Txikienak abesbatzen ardura duten Maria Eugenia Doval eta Pilar Aizpuruak jaso zuten saria, eta, bestetik, azken hamabi urtetan parroko erlojua behar bezala dabilela zaindu duen Rafael Aizpuruak ere saria jaso zuen.

Sari hauen antolaketa eta banatzeko era ez da denen gustukoa izan. Euskal Herriarrok alderdiko zinegotziek gutun bat kaleratu zuten beren iritzia adieraziz. Zenbaki honen gutun



orrialdean irakur dezakezue oso-osorik.

Zumaia Loretan eta Argazki lehiaketan sari banaketa

Hilaren 5ean izan zen Foronda Kultur Etxean Zumaia Loretan eta Zumaia Argazki lehiaketan sari banaketa. Lehena hirugarren aldiz antolatzen zen; argazki lehiaketa, berriz, jada hamahiru aldiz antolatu da.

Zumaia Loretan lehiaketarako hiru auzotan banatu da herria. Lehen auzoan, Alde Zaharrean, irabazlea, eta hirugarren aldiz, Miren Iribar Osa izan da. Bigarren saria Begoña Izagarentzat joan da. Bigarren auzoan, poligonoetan, Maite Suarezek irabazi du eta bigarren Maxima Hernandez. Azkenik, hirugarren auzoan, Paolaldea eta Larretxo batzen dituenean, irabazle Hiltegi Zaharreko Arritokieta elkarte izan da eta bigarren Marijo Yeregui.

Zumaia Argazki Lehiaketan, berriz, hiru sari banatu ziren. Angel Ispizuak jaso zuen lehen saria, "Aketxe" lanagatik. Bigarren saria, berriz, Javier



Goitik behera: argazki irabazlea, Argazki Lehiaketako hiru sarituak, Zumaia Saria jaso zuen jendetza eta Zumaia Loretan lehiaketako sarituetatik lau.



Pedro Fernandez Ferrerasentzat izan da, "Maleku" argazkiagatik; hirugarrena, azkenik, aurreko urtean saritua izan zen Andres Indurain Gutierrezentzat, "Contrastes" lanagatik.

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143



Bi marianito txakolina eta azeitunak



Udaldia hasi da. Beroa eta sargoria batzuetan, ezusteko euri zaparradak hurrengoan. Euskal Herriko uda honelakoxea izan ohi da, tropikala. Hondartzara gerturatzeko joera uda guztietako kontua da, eta euskaldunik den tokian, hutsik egin gabe han izango da taberna. Hondartzetako kantinak leporaino egoten dira garai honetan, haurrek patata poltsa nahi dutela, gaupasa egindako gazteek kolakaoa, oporretan dagoen bankariak txakolina eta pintxoa... bakoitzak berea. Bakoitzak berea, baina denak aldi berean. Horrek ematen ditu buruko minak. Gu Santixoko eta Itzurungo kantinetan ikusmiran ibili gara. Gu beti zu zerbitzatzeko prest.

SANTIXO, itsasoa bare dago

Hondartza oparoa da Santixokoa, esparru zabala, belardia atzean, pasea-
lekua alboan... aparkaleku gutxitxo

egoteak zapuztu lezake apur bat bertaratzen direnen gogoa, baina sekula ere ez da galtzen uda giroa. Bertan bi kantina daude. Bata hondartza sarreran eta bestea hondartzaren erdialdean. Honako ordutegia dute: sarrerakoa, goizeko 9.00etatik gaueko 10.00etara egoten da zabalik, eta bestea ordu berean hasita iluntzeko 8.30etara.

Lehenengoan hamar langile inguru ari dira lanean; bigarreanean, berriz, bost. Dena dela, kopurua askotan eguraldiak neurtzen du; han, dena eguraldiaren arabera mugitzen baita.

Laneko egunik gogorrenak zein diren galdetzean, “aste bukaerak eta eguraldi oso ona egiten duen egunak” direla esan dute. Izan ere, “lan asko denbora gutxian” izaten baita, Borjak dioenez. Kontrapuntuan egunik onenak daude, “aste bitarteko edozein

egun, lana konstante samarra eta aukeran urria” denekoak.

Lana, beraz, eguraldi ona egiten duenean izaten da. Baina hasieran aipatu ditugun ustekabeko euri zaparrada haiek etortzen direnean zer egiten da kantinan? Borjaren hitzetan, txukunketa lanak egiten dira, bisita egin genion egunean ere “goizeko 9:00etatik bakarrik” zegoela zioen.

Bien arteko zerbitzu eskaintza nolakoa den konparatu dugu, sarrerakoan bazkariak eta gehienbat ogitarteko gisako afariak ematen dituzte. Bestean, aldiz, ogitartekoak, kroketak, rabak eta pintxoak. Dena dela, hondartza bakoitzak bere nortasuna du, bere izaera. Urteen poderioz hondartza bakoitzera jende mota bat gehiago gerturatu da. Zehazki, Santixokoagatik galdetu ondoren, bertaratzen den jendea heldua dela dio,

“haurrentzat ere lasaiagoa baita; bestalde, jubilatua ere nahikotxo etortzen dira...”. Sandaliak eta eguzkitako betaurrekoak jantzi eta bagoaz.

ITZURUN, labarra olatuei begira.

Itzurun hondartza bitxia dela ez du inor ukatuko. Ea non ikusi den hondartzara joateko horrelako aldaparik? Hori hasteko. Eta gero norbaitek ea hondartzako elefante arrosak ikusi dituzun galdetzen badizu, konpleto zaude. Itsasoari begira ezker aldeko labar horretan elefanteak aurkitu nahian makina bat denbora pasatu du jendeak. Baina goazen geurera, Enbata izena du bertako kintinak eta aurtengoa bigarren uda dute bertan lanean. Goizeko 9:00etatik gauerdia ingurua arte hamar langilek jarduten dute bertan lanean.

Hona beti ere herriko jende gehiago hurbiltzen da, eta gazteagoa agian. Baina autobusean tropelean etortzen diren azpeitiar-azkoitiar-zestoarrek ere bete-bete egiten dute hondartza, eta baita kantina ere. Autobusa etortzen denean igartzen al den galdetu diogu Gentzaneri, eta bere iritziz “nabarmena da multzo handitan nola etortzen diren orroka”. Zerbitzuak, zer-nolakoak? Era guztietako bazkari eta afariak ematen dituzte: kaxuelitak, plater konbinatuak, pintxoak...

Baina kintinaz gain, lantalde honek beste bi konpromiso ere baditu: lehena,

jendeak gordetzeko ematen dituen hamakak, jaso, zaindu eta datorrenean atzera ematea; bigarrena, hondartzan dauden toloak alokatu, zaindu eta egunero ireki eta ixtea. Nahiko lan ematen dute bi lan horiek eta aipatzean, “badakizu nolakoak diren andreak...”, erantzun digu.

Ezin ahaztu, gainera, azken urteotan gehitzen doan faktorea, turismoa, alegia. Gero eta atzerritar gehiagok bisitatzen dute herria, eta baita hondartza ere. Kintinan hizkuntza arazoa izaten da larriena, batzuetan zerbitzaria mareatzerainokoa. Ingelesak, holandarrak, irlandarrak eta frantsesak etorri omen zaizkie oraingoz gehienbat, eta “okerrena frantsesekin hitz egitea da, ez zaie piperrik ere ulertzen”, esan du Gentzanek gogo biziz.

Bukatzeko, zer hobeto izozki fresko bat baino. Itzurunen bertan, goialdean du txiringitox txurreroak, eta San Jose kalean berak eginiko izozkiak saltzen ditu. “Oinarrian esnea eta azukrea ditu, eta gero zaporea ematen dion materiala gehitzen zaio”. Jendearen ohiturak aldatu egin direla esan digu, “orain bost urte bainilazkoa zen salduena, baina orain jogurt zaporekoa da gehien erosten dutena”. Barkilloari heldu, eta mingaina luzatuta aldapan behera goaz, tipi-tapa.

Uda da. Goza ezazu. Hondartzara bazoaz, on dagizula. Kintinara bazoaz: bi marianito, txakolina eta azeitunak.



INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

AIZPURUA

LIBRERÍA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ARGIA

ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224

festak sanpedroak...

...eta sanferminak

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

- denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



askotan etortzen al zara kinkilerotara



Amaia Fernandez
Lehenengo aldia da etortzen naizena eta beste herritako azoken modukoa da. Beno, orain "rebajak" daude eta horixe berezitasuna.



Igone Saizabal
Mireiari bisita egitera etortzen gara, bestela askotan ez.



Uxo Saizabal
Gutxi etortzen naiz. Gehien gustatzen zaizkidanak poltsak, nikiak eta pitxiak dira. Hori bai, 11:30ak "hora punta" dala konturatu naiz.



Marije Golmaio
Gutxitan, ez det ezagutzen giroa, lanordutan tokatzen zait-eta. Orain ere hondartza bidean, pentsa, ez daukat durorik ere.



Ixabel Dorronsoro
Tarte dudanean etortzen naiz. Prezioetan aldea badago, baina garrantzitsuena gustuko zerbait erostea da.

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

Herri euskara

“Zumaia kaka”

Zenbat aldiz entzun eta erabili ote dugu “Zumaia kaka” esaera zaharra! Baina, noiz erabiltzen da?

Gehienetan zerbait ez badugu ondo egiten asmatu edo gauzaren bat nahi genuen bezala atera ez denean, norbaitek guk entzuteko moduan gogoraziko digu “esaten det ba nik, Zumaia kaka, esan zuenak ere egia galanta esan zuela”.

Beste batzuetan berriz, zerbaitekin edo norbaitekin konparatuz maila eskasa eman badugu, belarritik sartuko zaigu, “alperrik da hemen betikoa dago, Zumaia kaka, eta kito”.

Eta esaerari ematen diogun erabilera dela eta, beti modu ezkorrean aipatuz, pentsa genezake zumaiaerok izaera kaskarra daukagula edo ez dugula behar den maila ematen eta barregarri xamarak garela. Eta neuk ere horixe pentsatzen nuen, esaera horren benetako jatorria ezagutu nuen arte.

Izan ere, Zumaia kontuak ondo baino hobeto dakizkien Erramun Manterolak azaldu zigun, egun batean, esaera horren benetako nondik norakoa. Hauek dira Erramunen hitzak:

“Guaiñ esan biar deu Zumaian zeatikan zan esaera bat Zumaian kaka esaten duena: garai artan etzan automoilik eta ezerre eta Zumaia beti komertzial izan da, barku merkantiak hara ta honea ta ganaua ibiltzen. Ta ganaua dan tokixan beti betuna dao. Ez al da ala?”

Nere gazte denboan automoil gutxi zan Zumaian, egi-egixa da, batez, zaldixak bai, itxian bagenuzen bi eta hiru re bai, zeatikan ama zanak Azpeitiko martxan ta ibiltzian zaldixak bihar. Ta orduantxe ikusten tzan Zumaxan kaka, ta gauza horreatixe ta ez bestela Zumaxa kaka danikan, baizikan betuna ganaua ibiltzan dan tokixan eoten dalako eta ez beste ezeatikan, baizikan automoilik etzeolako garai hartan, geo etorri zian...

Poza eman zidan jakiteak esaera horrek ez duela zerikusirik zumaiaerarekin, eta garai hartan herrian zehar ikusten zen “ganaduaren betuna” izan zela erruduna.

Beraz, aurrerantzean lasaia geldituko gara “Zumaia kaka” esaten digutenean eta geuk ere lasaia erabiliko dugu aspaldiko esaera zaharra.

Dena dela, eskerrik beroenak Erramuni gure “oroimen historikoa” osatzen lagundu digulako.





Izaga Garcia. Dietista

Medikuntza naturala

Sendabelar garrantzitsuenak (II)

• **Etxinazea** (*Equinacea Angustifolia/Purpurea*). Oso egokia da babes mekanismoak osasuntsu mantentzeko eta katarro eta gripeei aurre egiteko. Batez ere tentetan eta kapsuletan erabiltzen da sustraia.

• **Eukalipto** (*Eucalyptus Globulus*). Batez ere arnas aparatuan arazoak daudenean erabiltzen da. Bere hostoak infusioan edo lurrunak egiteko erabiliko ditugu.

Ezin da hartu haurdunaldian edo homeopatia erabiltzen bada.

• **Ezkaia / Tomilloa** (*Thymus Vulgaris*). Desinfektantea da bere esentzia, eta infekzioetarako erabiliko dugu. Batez ere arnas aparatukoetan (sinusitis, eztula, katarroa...). Esentziaren tantak urarekin edo lurrunetan erabiliko dugu.

• **Ezki-lorea / Tila** (*Tilia Europea*). Bere hostoekin egindako infusioak lasaigarriak dira eta umeentzat erabil daitezke.

• **Harpagofitoa** (*Harpagophytum Procumbens*). Hemen oso erabilia ez izan arren, hanturazko prozesuei aurre egiteko garrantzitsuenak: gaixotasun erreumatikoetan, artritisean erabiliko dugu. Bere sustraia infusioan edo piluletan erabiliko dugu.

• **Hiperikoa** (*Hypericum Perforatum*). Efektu ansiolitiko eta antidepresibo garrantzitsuenak ditu. Bere loreak infusioan, tantetan edo piluletan hartzen dira.

• **Kamamila** (*Matricaria Chamomilla*). Kamamila izenez barietate ezberdin asko ezagutzen ditugu, baina guztien erabilera garrantzitsuenak urdaileko arazoetan lagungarria izatea da. Infusioan hartuko dugu.

• **Menta** (*Mentha piperita*). Bere hostoekin egindako infusioak digestio laguntzaileak dira. Ezin da erabili homeopatiarekin batera.

• **Onagra** (*Oenothera Biennis*). Emakumearen landarea deitua, bere olioarekin egindako perlatu lagungarriak dira arazo menstrualetan eta menopausian.

• **Plantaina / Ilanten** (*Plantago major*). Oso lagungarri ona da arnas aparatuko arazoetan: bronkitisa, eztula, katarroak... Infusioan har daiteke, baina egokiena, ezti eta plantainaz egindako xarabeak dira.

• **Sahatsa** (*Salix Alba*). Analgesikoak dira bere azalarekin eginiko infusioak. Azido azetilsalizilikoa daukanez, batez ere min erreumatikoetan erabiltzen da.

Josu Waliño. Informatikaria

Olarrua amaraunean

Posta erabili Internet bidez

Posta elektronikoaren onurak ezagunak dira guztiontzat. Ez naiz beraz hortaz arituko, bi posta moten arteko desberdintasunaz baizik. POP3 eta WebMail-ari buruz ari naiz. Gutako gehienok POP3 motako posta erabiltzen dugu etxean. Hau da, esaterako, Euskaltel-ek eskaintzen duena. Horretarako, Outlook, Eudora edo PegasusMail bezalako kudeatzaileraren bat behar da, eta hori konfiguratzat erabiltzen dugu posta gure ordenagailutik. Mota honen abantaila da ez dugula Internet-era konektatuta egon beharrik posta idatzi edo irakurtzeko. Posta bidali edo jasotzeko momentuan bakarrik konektatu behar gara. Web bidezko posta, berriz, sinpleagoa da. Internet-eko nabigatzailearen bidez, zerbitzu hori eskaintzen digun web orri batera konektatzen gara eta bertan erabiltzen dugu posta. Honen abantaila, munduko edozein ordenagailutik gure posta erabili ahal izatea da. Desabantaila, berriz, posta erabiltzen dugun denbora guztian Internet-era konektatuta egon beharra daukagula. Honelako posta-zerbitzua eskaintzen duten web gune asko dago: hotmail (www.hotmail.com), latinmail (www.latinmail.com) edo Yahoo bera esaterako (www.yahoo.com). Baina, oraingoan, WebMail zerbitzu euskaldun bat aurkeztuko dizuet: www.euskalerria.org. Besteekiko duen desberdintasun bakarra hau da: zerbitzu guztia euskara hutsez dagoela, eta zuen helbideak forma hau izango duela: izena@euskalerria.org.

Dena den, POP3 motako posta erabiltzen duzuenok kontuan izan kasu batzuetan zuen hornitzaileak web bidezko posta ere eskaintzen duela, hau da, zuen betiko posta web bidez ere erabil dezakezuela. Hau da Euskaltel-en kasua. Bere web orritik (www.euskaltel.es) zuen posta atzi dezakezue Web posta izeneko aukeran klik eginez. Ondoren, zuen erabiltzaile izena eta pasahitza eskatuko zaizkizue, eta zuen betiko posta Internet bidez erabili ahal izango duzue edonon zaudetela ere.

expert 

ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etexzarreta, 6 Tel. 943 861078



KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA

TXOMIN AGIRRE KAIA

TEL. 943 86 21 81



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

Uztailaren lehenean Berriatuan zen hitzordua, arratsaldeko 17:15etan. Txapelketako finalerdietan ezusteko franko ikusi genituen: Alberdi I.ak aurreko hiru txapelketetan garaile izandako Felix kaleratu zuen, eta Goikoetxeak, berriz, Balda, Jai Alai eta Berriatuako kanporaketak irabazi zituen. Finalerako, beraz, ikus-mina zegoen eta argi zegoen partida interesgarria izango zela.

25 tantorako bidean, lana franko egin zuten biek ere. Goikoetxea, hasiera aldean arazo bat edo beste izanagatik, partidaren erdialdean 17-13an zegoen markagailuari buelta emateko gai izan zen. Errebotean hartutako pilotarekin bi pareta ikusgarria eginez 17-16an jarri zen. Aurretik jarrita, gogor jarraitu zuen lanean eta lehia bukatzeko ere tanto ikusgarria egin zuen. Horrela, Goikoetxea aurtengo buruz buruko zesta puntako txapeldun geratu zen, sasoi eta etengabeko lanak fruituak eman dituen erakusgarri.

Iñaki Osa Goikoetxea

“Hondartzatik meriendatzera joan eta telebistarako elkarrizketa bat egiten bukatu nuen, txankleta eta guzti.”

Patxadan etorri da zitara, udako jantzi arinekin. 21 urte, 1,93 metro, 95 kilo eta pauso lasaia.

Bazkalorduan etxean egoten da.

Surfa egitea atsegin du, eta Euskal Herriko buruz buruko zesta-puntako txapelduna da.



Lehenbizi zorionak. Nola ospatu zenuen igandeko hartako garaipena?

Aparteko ezer egin gabe. Herrira etorri eta lagunekin juerga txikia egin nuen. Baina gauza handirik ez.

Denboraldiak aurrera jarraitzen al du?

Bai, ez dago gelditzeko astirik. Urria arte hemen egongo naiz, eta nahiz eta zehazki ez jakin, partidak eta datozen txapelketak jokatu beharko ditut.

Beraz, zelebrazioetarako garai txarra, udako parranda eta juerga guztiak zer?

Ba, zaindu beste erremediarik ez dago. Irtendakoan ura edanez, eta askotan juergara irten gabe geratuaz. Zinemara edo joan eta... baina, hala ere, ez naiz egoten sekula bakarrik.

Askorentzat sorpresa handia izan da zure garaipena. Herritik kanpora denbora gehiegitxo pasatzen al duzu?

Baietz uste dut. Dagoeneko lau urte eta erdi pasa ditut kanpoan, eta hemen ez zaudenez beti ere jendeak zure erreferentzia gutxiago du. Jende gutxi ezagutzen ninduen, bai.

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Kantuak zioen bezala "gazte-gaztetatikan herritik kanpora".

Oso gazterik, bai. Lehendabizikoz hamasei urterekin joan nintzen atzerrira. Italiako enpresa batek proposamena egin zidan eta nik onartu. Hamazazpi urterekin AEBetara pasatu nintzen, lehenengo Newport-a eta gero Orlando-ra. Hemezortzi betetzean, Munduko Txapelketa aurretik, Eusko Basque enpresa euskaldunak fitxatu ninduen, hemen urtean lau hilabetez jokatzeko. Orduz geroztik 8 hilabete Orlando-n egoten naiz eta 4 Euskal Herrian.

Ondoren AEBetara. Zer-nolako dinamika daramazu han?

Astean bost egunez izaten dugu lana. Han ez dira partidak egiten, kinielak baizik. Zortzi banakako edo bikote ilaran jarri eta txandaka tanto batera jokatzeko da. Irabazleak kantxan jarraitzen du, galtzaileak irten egiten du eta hirugarren jokalaria sartzen da. Zazpi tanto egiten dituen lehenak irabazten du. Han ohituta, hona etorrita partida osoa jokatzeko oso gogorra suertatzen zait.

Euskaldun mordoa dago han, eta zumaia ere nahikoa, ezta?

Bai, gehienok euskaldunak gara, eta geure taldea sortua dugu. Gure frontoian, adibidez, hogeitau baina gehiago gara. Zumaia berriz bederatzi gaude Ameriketara. Miami-n Zinkunegi eta Mugerza; Newport-en beste hiru; Mildfort-en beste Mugerza bat; eta Orlando-n hirugarren Mugerza, nire anaia Luis eta neu. Santelmotan Newport-ekoak Orlandora joan ziren eta urdinez jantzita festak ospatu genituen. Eskerrak hurrengo eguna jai zen!

Amerikarren bizimodua, esaten duten "american way of life" pegatzen al da?

Jateko aldetik-eta, guk hemen bezala jaten dugu. Anaiak sukaldeko lanak egiten ditu eta nik ontziak garbitzen ditut. Luis itsasontzian ere ibilia da sukaldari moduan eta ondo moldatzen da. Ingelesezt, berriz, ondo moldatzen naiz, hemendik bueltatzean apur bat kostatzen da, baina erraz ohitzen naiz berriro.

Zortzi hilabete han egotean, zeren falta sumatu duzu batez ere?

Gehien-gehien, etxera joan eta dena listo egotea da. Eta koadrilakoak ere bai, hemengo parrandak... baina behin mentalizatuta baldin bazaude, ondo samar egoten da. Hala ere, Aberri Eguna bezalako egunak ospatzen ditugu.

Partida zailak izan al ziren kanporaketetakoak?

Bai, gogorak. Denak izan ziren latzak, baina zailena Bereikuaren aurkako finalerdia. Bera etxean ari zen eta... Baina Zumaia joandako 15-20 lagunek animoa altxa zidaten momentu guztietan. Ondo etortzen da harmailetan lagunak hor daudela ikustea. Finala ere oso gogorra izan zen, sakearekin irabazi nion, baina aurkari oso gogorra da Alberdi I.a ere.

Pertsona asko harrituta geratu ziren irabazi ondoren erakutsi zenuen umiltasunarekin.

Poza eman zidan, noski, baina bestearekiko errespetuz ez naiz pozaz saltoka hasten den horietakoa. Kopa ere norbaitek esan zidalako altxatu nuen.

Noiz arte ikusten duzu zeure burua lan honetan?

Irauten dugun arte. Izaten diren lesioek eta beste faktore batzuek zerikusi handia dute. Normalean 40 urte ingurura arte irauten du jendeak.

Azken asteotan famatu izaten ikasten ariko zara. Zer moduz?

Oso gaizki. Ez zait batere gustatzen horrela ibiltzea, deiak batetik, elkarriketak bestetik... Kanean jendeak geratu egiten nau hitz egiteko, eta oso arraroa egiten zait guztia. Aurreko batean hondartzatik meriendatzera joan eta telebistarako elkarriketa bat egiten bukatu nuen, txankleta eta guzti.

Amaitzean, joan beharra daukala dio, gauean beste partida bat duelako. Etorri bezala, lasai asko doa. Hura ere irabazi egin zuela jakin dugu. Sasoi horrekin ez da harritzekoa.



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



Urumea, 6 Tel. 943 862083

Piraguak ibaian gora eta behera

Hilaren 7an jokatu zen Urola ibaiaren bokalean Urolaren Igoera-Jaitsiera piragua txapelketaren 25. ekitaldia. Espainiar estatuko 23 taldek hartu zuten parte Euskadi Kopan sartzen den proba honetan, horien artean piragua munduan hain ezagunak diren Helios Zaragoza, Iruneko Santiagotarrak, Donostia Kayak eta, nola ez, Zumaiaiko Itxas Gain elkarteak. Arratsaldeko lehen ordutik eta gaua heldu arte iraun zuen giro onak herriko kaleetan.

Arratsaldeko 5ak izateko pare bat minutu falta zela eman zitzaion probari hasiera Santixoko hondartzan. Partaide bakoitzak bere piragua eskuan hartu eta uretara. Maila guztietako piraguistak batera irten ziren; horrela, probari hasiera ikusgarria baina nahiko kaotikoa eman zioten. Lehen metroetan ontzi batzuk irauli ere egin ziren, eta bat baino gehiago inguruan zeuden txalupek igo behar izan zituzten.

Santixotik Beduara joan ziren piraguak. Han bira eman, eta Zumaia bueltatu ziren. Azken zia boga Abascal etxearen aurrean eman ondoren, Gernika parkearen



aurrean ezarritako helmugara hurbildu ziren partaideak.

Sarituei dagokienez, eta gizonezko senior mailako K-2an, irabazleak Zaragozako Helios taldeko Daniel eta Manuel Palacin izan ziren. K-1ean, aldiz, Asturiaseko Los Gorilas taldeko Jose Carlos Diez. Emakumeetan, K-2an irabazle Helios taldeko Ana Garcia eta Selma Palacin izan ziren, eta K-1ean Barrika talde bizkaitarreko Naiara Gomez.

Zumaiarrei dagokienez, Itxas-Gain taldeko neskek oso emaitza onak lortu zituzten. Adibide bezala, hor daude K-1 jubeniletan Esther Eizagirrek, K-2 kadeteetan Maite Amilibia eta Maitane Atorrasagastik eta K-1 kadeteetan Nerea Azpillagak lortutako garai-penak. Mutiletan ez ziren hain emaitza onak lortu eta K-1 jubeniletan Imanol

Atorrasagastik lortutako bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Taldeko sailkapenari dagokionez, lehena Asturiaseko Los Gorilas taldea izan zen, bigarren Iruneko Santiagotarrak eta hirugarren Zaragozako Helios. Itxas-Gain taldea laugarren postuan sailkatu zen.

Omenaldia

Txapelketa honek 25. urteurrena betetzen zuela-eta, Itxas-Gain elkarteak zuzendaritzak txapelketako lehen ekitaldian garaile izan ziren taldeko kideak omendu zituen. Omenduak Jose Ramon Barrera, Paskual Gomez, Jose Mari Aizpurua, Jesus Mari Alkorta eta momentu honetan taldeko lehendakaria den Ligorio Urruzuno izan ziren. Baina bost horiez gain, beste lagun batzuk ere omendu zituzten; horrela, urte hauetan guztietan Jose Luis Merinok egindako lana ere omendu nahi izan zuten sari banaketa ekitaldian. Halaber, Marijo Mendizabali ere omenaldia egin zioten, bera izan baita proba honetan partaidetza gehien izan dituen kirolaria.

AUTO-ESKOLA

ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

TSY-BITSY

SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 943 862373

taberna

JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

KABI

TABERNA - ZUMAI A

Tel. 943 143379

Surflariak lanean eta konpromiso eske

Surfista izatea “zarauztar pijoen” kontua dela uste duenak jai du. Zumaian surfa, erroturik dagoen kultura baita dagoeneko, baita paipo, bodyboard eta antzerako estiloak ere. Itzurun olatu gainean ibiltzeko toki egokia izanik, zaletu ugari eta kirolari mordoska du alor honek. Gu Manu Urangarekin izan gara, eta berak kontatu dizkigu Zumaiaiko surflariak dituzten proiektu, kezka eta ohiturak.

Honelako zaletu multzoa izanda, guztiak batu eta herrian taldea osatzea erabaki dute, “beste herrietan ere badago surf talderik, Orion, Zarautzen...”, eta Zumaian horren hutsunea sumatzen dutela dio. Udaleko arduradunekin hitz egin nahi dute asmoak gauzatzeko, bere hitzetan “Udalak betebeharra dauka herriko kirol taldeekin. Udalak diru kopuru zehatz bat du banatzeko guztien artean: futbolari, arraunari, eskubaloari... eta guk kopuru horren

zati bat guretzat izatea nahi dugu. Kirol talde bat gara eta besteek bezalaxe guk ere beharrak ditugu”. Diruaz gain, lokaltxo bat ere ez litzaie-keela gaizki etorriko gaineratu du Manuk.

Talde itxurosoa osatu dutela dio, eta lana egiteko gogoz daudela. Horren erakusgarri, Aste Santu inguruan mundu mailako proiektu batekin bat egin zuten herriko hondartzak garbitzen. Eta sariketa eta txapelketei buruz hitz egiten hasten bagara, ezin esango dugu atzean geratzen direnik. 95ean Manu Euskadiko Txapeldun izan zen bere kategorian. Iaz, berriz, Pro Junior mailan Europako finalerdietan bosgarren izan zen. Alex Urangak ere mailari eutsi zion eta Sub14 mailan zazpigarren gelditu zen. Azkenik, Jon Lopez gaztea ere, Sub16 mailan, oso ondo dabilela adierazi du.

Uda iritsi da eta Manuk beste proiektu bat du eskuartean, oraingoan Itzurun baino pixka bat haratagokoa. Nora doan? Indonesiara. Hartu maletak eta surfeko taula, eta uztailaren lehen astean munduaren beste muturrera joango da, Euskadiko txapeldunarekin eta Kanariar Uharteetako txapeldunarekin batera. Baina Manuk ez ezik, beste zumaia batzuek ere ezagutuko dute Indonesia uda honetan, abuztuan beste surflari talde bat joango baita hara. Bertan surfa praktikatu eta denboraldi eder bat pasatzeko aukera izango dute. Emango dizuegu beraien ibileren berri, irailean. Bitartean, surfaren inguruko berri gehiago nahi baduzu Euskal Herriko Surf Federazioak duen web orrian sar zaitezke, bertan baituzu nahi duzun informazio guztia.



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

TXINGURRI
Koof. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

Ur-gintza

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 943 148082
Faxa: 943148124
78 postakutxa

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Pello Rubio barazki postua zaintzen.

Nekazaritza ekologikoaren zaleak Lasturrera

Aurreko urteko azokak izan zuen arrakastak bultzatuta eta nekazaritza ekologikoak sortzen duen interesari erantzuna emanaz, Biolur Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarteak eta Debemen eta Izarraitz Bizirik erakundeek antolatuta, II. Nekazaritza Ekologikoaren Azoka izango da hilaren 22an Lasturren.

Iaz izan zen honelako lehen azoka eta Biolurreko lehendakaria den Pello Rubio zumaiarraren esanetan, sekulako arrakasta izan zuen. “Esperientzia oso ona izan zen. Deba bailarako jendeaz gain, kanpoko jende ugari hurbildu zen Lasturra. Auzoko jendea ere zeharo harrituta eta gustura geratu zen azokarekin. Aurtengoan gogo handiagoarekin heldu diogu”, dio Pellok.

Pello Rubio 18 urte zituela joan zen Elgoibarra. Hainbat urtetan tailerrean lan egin ondoren, dena utzi, etxea saldu eta mendira salto egin zuen. Nekazaritzaren ideiarik izan gabe baserrian lanean hasi zen. Azken 12 urteetan aritu da baserrian lanean. Orain 9 urte nekazaritza ekologikoa ezagutu zuen eta momentu honetan Biolur elkarteak lehendakaria da.

Pelloren esanetan, nekazaritza ekologikoak ez du lur, ur eta airerik kutsatzen. “Helburua, lurraren osasunerako garbiak eta onuragarriak diren elikagaiak sortzea da. Horretarako,

lurraren emankortasuna eta ekosistemaren oreka zaintzen dira: abereen bizi baldintza duinak ziurtatzen dira, ez da hondakin toxikorik sortzen eta ongarri, botika edo gehigarri artifizialik ez da erabiltzen. Azken batean, prozesu naturalari bere zikloa jarraitzen uzten zaio”, dio Pellok.

Iaz ekin zioten Lasturren azoka muntatzeari. Asmoetako bat nekazaritza biologikoa kalean bizi den jendeari zabaltzea zen. Bestetik, baserriko antzinako gauzak berreskuratu nahi izan ziren. Esate baterako, aurten belar metak prestatuko dira. Hainbat tailer ere aurkituko ditugu, hala nola, artile, zeramika eta bertako errota batean zehetutako irinaz taloak egingo dira. Sagardo museoko erakusketa eta dolarea eta muztioak ere aurkituko ditugu. Artearentzat ere lekua izango da artile langintza eta tindaketa naturala, egur taila eta zeramikarekin. Azoka bat baino gehiago da Lasturrekoa.

Pellok esaten duen bezala, “lehenengo ferien modukoa izango da. Goizean, 9:00etatik 14:00etara azoka izango da. Gero, bazkari ekologikoaren ondoren, erromeria izango da. Euskal herrialde guztietatik etorriko da jendea azokan parte hartzera. Gauzak saltzeaz gain, baserriar asko inguratzen da horrelako azoketara, gauzez galdeztera, nekazaritza ekologikoa gertutik ezagutzera, etab. Harremanak sakontzen dira”.

Momentu honetan nekazaritza mota honen eskaera eskaintza baino handiagoa omen da, aitortu digu Pello Rubiok. Ez omen dute ezer berririk asmatu, esan digu Pellok. “Orain 40 urte baserrietan egiten zena baino ez dugu egiten guk, prozesu naturalari eutsi”, esan digu.



Rakel
estetika

kiromasajea
tatuajeak

Aita Mari 42, behea

TEL: 943 862093

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 943 861670



SIWA
Belardenda


Basadi 5C
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

Izenburua: Euskal Herriko arrantza

Argitaletxea: Untzi Museoa

Urtea: 2001



Arrantza mundua monografikoki lantzen duen Itsas Memoriaren hirugarren zenbaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Untzi Museoa Euskal Herriko itsas dimentsioa ezagutarazteko egiten duen lanaren beste fruitu bat da.

Honako hau arrantzarekin zerikusia duten historia nahiz antropologia arloko hainbat gairen tratatua da. Itsas Memoriaren ale honetako eduki guztiak ez dira denboran atzera begira jarrita jasotakoak. Untzi Museoa argitara emandako beste lan batzuetan bezala, gaur egungo egoera ere kontuan hartzen da, arrantza sektorearen egungo gora-behera eta etorkizun kezkarriari buruzko azterketa batzuk jaso eta eskainiz.

Argitalpenak osagarri ditu, gainera, Erdi Arotik XX. mendea bitarteko beste hainbat gai ere, hala nola, Untzi Museoko bildumetan bapozeko ontziak zer-nola irudikatzen diren, Euskal Herrian nautikaren irakaskuntza nolakoa izan den, interes handiko gai arkeologiko nahiz dokumentalak ere biltzen dira, etab.

Aditu denarentzako nahiz euskaldunen eta itsasoaren artean izan diren eta dauden loturak sakon ezagutzeko interesa duen edonorentzat interesgarria izan daitekeen argitalpena da.

ZINEA



Evolution

Zuz: Ivan Reitman
Akt: David Duchovny, Julianne Moore, Orlando Jones.

Udako birusak zinemetako filmei laster erasango dien seinaleetako bat honelako filmak agertzea da, hau da, jendeak asperkizunari eta beroari errazago aurre egiteko pelikula, buruari gehiegi eragiterik eskatzen ez dutenak.

Zoritarrez, ordea, *Evolution* ez da iristen honelako pelikula bati eska dakioken interes mailara. Ivan Reitman zuzendariak arrakasta handia izan zuen *Los cazafantasmas* filmari esker eta irrikatzen dago antzeko zerbait berriz ere noiz lortuko; gogoratu film haren argumentua: lagun talde batek elkartu, mamuen erasoari aurre egin eta mundua salbatzen zuen; bada, orain egin berri duen filma, tamalez, pelikula arrakastatsu haren oso antzekoa da, antzekoegia.

Evolution pelikulak ere inbasio hilgarria du gaitzat, baina oraingoan estralurtarrena; eta lagun taldea ere badaukagu (Bill Murray-ren koadrilla bezain txoriburua, baina ez hain gatzduna), David Duchovny buru duena; baina aktore protagonista nahikoa eskas aritzen da lanean, ez baita gauza bere aurpegi harritua aldatzeko, eta ematen du filmean sartzearen arrazoi bakarra *Expediente X* telesailean Objektu Hegalari Ezezagunen atzetik aritzeagatik loditu zuen curriculum potoloa dela; bestalde, hor daukagu, baita ere, Seann William Scott, beltz xelebrearen rolean, seguru aski Spike Lee-ren amorrariorako.

Protagonistei dagokienez, aipatu beharko ditugu, halaber, etengabe estropezuka ari den Julianne Moore, Spielberg-en estiloko dinosaurusu batzuk eta zolda kentzeko ez ezik, estralurtarrak desagerrarazteko balio duen xanpu miragarria.

KOLDO LANDALUZE



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- * Depilaketa (beroa, epela)
- * Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- * Aurpegia edertzeko sendabideak
- * Gorputza edertzeko sendabideak
- * Lurrindegia
- * Solarium-a



*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 943 143422



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412

uztaila agenda

25

asteazkena
18:00etan
Beheko plazan

SALTINBAKIAK
MAIMUR
TALDEAREN
ESKUTIK
"Ken ezazue
eskegita duzuen
arropa, saltin-
bankiak datoz eta"
dio talde honek lan
honetarako
aukeratu duen
leloak. Hitz hauen
bitartez, iragartzen
zen Erdi Aroan,
ezohiko pertsonaiez
osatutako girotze
konpainien
etorrera. Arropa
koloretsua zerama-
tzaten pertsonaia
horien ikuskizun
harrigarriak, herri
eta hirietako egune-
rokotasun goibela
apurtzen zuten.

Pertsonaia horiek, herriz herri
bidaiatuz, bizitza ibiltariaren ardatza
nonahi zabaldu zuten. Ezer gutxi
zuten, zeramatzaten arropa baino ez,
eta kasu hoberenetan gurdi bat
ikuskizunetarako behar zituzten
gauzak garraiatzeko. Zerua zuen
sabaitzat eta zorua, ohetzat. Berezko
agertoki gisa, berriz, herri eta
hirietako jai eta azokak.

Maimur konpainiak irri, fantasia eta
sinpleziaren mundura bidaiatzeko
gonbita luzatzen digu. Musikaz lagun-
duriko sekuentzia bizien bitartez.



22

igandea

19:00etan
Beheko plazan

DANTZA SAIOA
Bidasoaldeko IV.
Nazioarteko
Gazteen Folklore
jaialdia Zumaiara
etorriko da egun
batez. Hilaren 22an
izango da zita hau.
Eguerdiko ordu
batean kalejira
egingo dute herrian
zehar. Arratsaldeko

7etan, aldiz, Beheko Plazan dantza
saio berezia izango da. Zumaiara
etorriko diren taldean Moskuko
'Razzadory', Eslovakiako 'Zornicka',
Argentinako 'Mirian Cid', Finlandiako
'Siekapat' eta Irungo 'Eraiki' euskal
dantza taldea izango dira.

13

ostirala

HERRIKO
ABESBATZEN
KONTZERTUA

23:00etan

Mari kaleko
plazatzxan

14

larunbata

JUAN CARLOS
IRIZAR eta KIÑU

taldearen
kontzertua

23:00etan

Beheko plazan

21

larunbata

GALIZIA
Ukraniako
musika taldearen
kalejira
19:00etan

23

astelehena

Medicos sin
fronteras erakun-
dearen
ERAKUSKETA
Abuztuaren 12a
bitartean
Forondan

28

larunbata

BANDAREN
UDAKO
KONTZERTUA

23:00etan

Beheko plazan

31

asteartea

SWINGLARIAK
TALDEAREN
KONTZERTUA

20:00etan

Beheko plazan



ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak



BALTASAR RIVABE 2/10 TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIARA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00


Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



Ardantzabide



Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Altzariak Larunbat arratsaldetan irekita!!



Hego kalea, 4 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**
TAILERRA: Santixo auzoa 40m